

LURRALDE LEHIAKORTASUNERAKO ETA KANPO SUSTAPENERAKO ZUZENDARI NAGUSIA

CRISTINA MÚGICA VARGAS

Gasteizen jaio zen, 1966. urtean.

Prestakuntza akademikoa:

- 1989: Hiri Soziologian lizentziatua Deustuko Unibertsitatean.
- 1990: Lurraldearen Antolamenduari aplikatutako Tekniketan diplomatua Eusko Jaurlaritzaren Hirigintza, Etxebizitza eta Ingurumen Sailean, Euskal Herriko Unibertsitateko Ingeniaritza Goi Eskola Teknikoan eta Lurraldearen Antolamendurako Lanbidearteko Elkartean (FUNDICOT).
- 1992: Marketing teknikaria Bartzelonako Marketing eta Administrazio Goi Eskolan (ESMA).
- 2003: Enpresa arloko Lehiakortasuna eta Eskualde Garapena. ESTE ikastaroa Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultatean eta Institute for Strategy and Competitiveness de la Harvard Business School izeneko zentroan.
- 2005-2007: Helbide turistikoen politikaren eta estrategiaren arloko Goi Kudeaketarako masterra Kataluniako Universitat Obertan, Munduko Turismo Erakundearen (MTE) lankidetzarekin.
 - 2005-2006: Helmuga turistikoen marketing arloko graduondokoa.
 - 2006-2007: Helmuga turistikoen kudeaketa iraunkorraren arloko graduondokoa.

Lanbide esperientzia:

1989. urtean egin zituen lehen urratsak GASTEIZKO UDALEAN (ARGILANen, Udal Garapenerako Agentzian). Toki garapenerako oinarritzko azterlanak egin zituen.

1990. urtean, ARABAKO FORU ALDUNDIAN lan egin zuen (Ekonomia eta Plangintza Sailean). Lurralderako proiektu estrategikoak garatzeko azterlanak egin zituen.

1990etik 1995era, LKS S. Coop. kooperatiba-enpresan hasi zen lanean.

- *Merkatu publikoa garatzeko Aholkularitza Estrategikoaren Arloan jardun zuen, eta arlo horretan eskualdeko plan estrategikoak eta toki garapenerako beste proiektu batzuk taxutu zituen.*
- *1993. urtean kooperatibako bazkide egin zuten.*

1995ean, EUSKO JAURLARITZAN, Industria, Nekazaritza eta Arrantza Sailean aholkulari-lanak egin zituen proiektu estrategikoen alorrean (EAEko Landa arloko Lehen Plan Estrategikoa, Landa-ingurunearen Garapenerako EAEn Legea).

1996tik 1998ra, zuzendari-kudeatzaile jardun zuen MENDIKOI, SA enpresan.

- Lanak: enpresa sozietate anonimo publiko bilakaraztea, Euskal Autonomia Erkidegoko landa-ingurunea garatzeko Zentro Integralaren proiektua lantze aldera. Nekazaritzako Eskolen integrazioa, landa-inguruneko ekintzaileentzako masterra, Europako laguntzak kudeatzea (5b, Leader), Landa-ingurunearen Garapenerako Elkartek (LGE) dinamizatzeko lana koordinatzea.
- Gerentziaren arloko lanak (langile-taldea gidatzea, kudeaketa ekonomikoa, Administrazio Kontseiluan parte hartzea, ordezkaritza-lanak eta erakundeekiko harremanak).

1998tik 2019 irailaren 2ra arte, LKS Next-en jardun zuen. Lurralde arloko Estrategia eta Garapenerako aholkularia.

- Aholkulari-lanetan jardun zuen, EA Eren eta Nafarroaren esparruko zein nazio-merkatuko (Galizia, Gaztela-Mantxa, Katalunia) eta nazioarteko (Bolivia, Uruguai, Kolonbia eta Costa Rica) proiektu estrategikoak garatuz. Ondoko lan hauek burutu zituen: Lurralde arloko plan estrategikoak, eskualde eta toki garapenerako proiektuak, hiri berrikuntzarako azterlanak eta proiektuak, landa-ingurunearen eta kostaldearen garapenerako planak eta programak eta turismoaren arloko lehiakortasun, berrikuntza eta dinamizazio planak.
- Eusko Jaurlaritzaren aholkulari jardun zuen hiru legegintzalditan, Euskadiko politika turistikoa diseinatze aldera: Euskal Turismoaren Lehiakortasun Plana (2006-2009), Euskal Turismoaren Lehiakortasun eta Berrikuntzarako Plana (2010-2013), Euskal Turismoaren Plan Estrategikoa (2020).
- Zenbait lan eta ardura bereganatu zituen kooperatibaren barruan: lurralde garapenaren eta gizarte-berrikuntzaren arloko arduraduna, Kudeaketaren arloko Aholkularitzarako Negozio Batzordearen kidea, Turismo Iraunkorrerako Taldearen arduraduna, LKSren ordezkaria EAEko Turismo alorreko ikerkuntza partekaturako Zentroaren Zuzendaritza Batzuan (CICtourGUNE) eta, gaur egun, iraunkortasunerako taldearen eta GIHen (garapen iraunkorrerako helburuen) arduraduna.

2019ko irailetik 2023ko uztailera Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko sailaren Lurralde-Lehiakortasun eta Turismo arloko zuzendari nagusia izan zen.

Egun, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ekonomia Sustatzeko sailaren Lurralde Lehiakortasunerako eta Kanpo Sustapenerako zuzendari nagusia da.

Hizkuntzak:

Euskara: ulermen maila ona mintzamen eta idazmen arloetan.

Ingelesa: maila ertain-aurreratua + (mintzatua eta idatzia)

Titulazioa: B.2.2.